

A.03. ESKOLAKO INSTALAZIOAK ERABILTZEARI BURUZKO ARAUDIA.

Araudi honek TGLUMEko instalazioak ondo antolatzea eta kudeatzea du helburu, ikasleek eta irakasleek eta instalazioen gainerako erabiltzaileek baliabideak arazorik gabe partekatu ahal izateko.

1. Ikasleek Eskolako instalakuntzak erabili ahal izango dituzte eskola ordutegitik kanpo, bertan ikasteko, eta baldin eta Eskolako Arduradun-Irakaslearen baimen idatzia eta irakasle arduradunaren aldeko txosten idatzia baldin baditu. Baimen hori ordutegi jakin bati lotuta egongo da, baldin eta Eskolako jardunbidea aztoratzen ez bada, eta ez du inolaz ere ikasturte bat gaindituko. Ikasturte berri bat hastean, berriro eskatu beharko da.

2. Eskolarekin zerikusirik ez dutenek ezin izango dituzte bertako instalazioak erabili, ohiz kanpoko egoeratan salbu, baldin eta Eskolako Kontseilu- batzordeburuaren edo bera ordezkatzeko izendatutako pertsonaren onospena baldin badu.

3. Erabiltzaileek behar bezala erabili beharko dituzte TGLUMEko instalazioak une oro. Instalazioak erabiltzean kaltea nahita eginez gero edo zabarkeria larria egonez gero, kalte eta zabarkeria horien erantzule izango dira.

4. **TGLUMEko gelen erabiltzaileek ardura hauek hartuko dituzte:**

4.1- Gela ireki eta itxiko dute.

4.2- Ordenari eutsi.

4.3- Gelan edozein akatsi ikusiz gero Eskolako bulegoan jakinarazi.

4.4- Materiala behar bezala ez erabiltzeagatik sortutako kalteak ordeztu, berrezarri edo ordaindu. Kalterik atzeman ez gero, Eskolak erabakiko du erabilera arruntaren ondorioz edo erabilera desegokiaren ondorioz izan den. Erabilera desegokiaren ondorioz baldin bada, kalteak ordezkatu edo ordaindu beharko dira.

Halaber erabiltzailea erantzule izango da, baldin eta TGLUMEko Administrazioari ez badio gelan topatutako akatsen berri eman.

5. Instalazioak erabiltzeko, erabiltzaileak giltza eskatuko du TGLUMEko bulegoan. Bertan geratuko dira erregistratuta bere datuak eta instalazioa erabiltzeko ordutegia. Gelara sartu ondoren, giltza entregatu beharko du.

6. 2. atalean jasotako egoeretan instalazioak erabiltzeko eskabidea Lezoko udal bulegoetan, Eskolako bulegoan edo Internet bidez egin beharko da eta bertan, honakoak gutxienez adieraziko dira:

6.1 Arduraduna, arazoak, kalteak, etab., egonez gero.

6.2 Arduradunaren izen abizenak, Nortasun Agiria, helbidea eta telefonoa.

6.3- Taldearen azalpen laburra eta eskatutako gelaren erabilera.

6.4 Araudia ezagutzen duela eta onartzen duela dioen zinpeko aitoren sinatua. Gehienez ere 7 eguneko epean eskabideari erantzungo zaio, eta erantzunik jasotzen ez bada, onartu ez dela ulertuko da.

Harik eta berriazko baimenik egon arte, ezin izango dira eskatutako instalazioak erabili.

Erabilera baimendu ondoren, 5. puntuan ezarritako prozedura jarraituko da.

6.5- Erabilera baimentzen bada, baina, ondoren, eskabidean jasotako parametroren bat aldatzen bada, arduradunak idatziz eskatu beharko du berriro baimena aldaketa horretarako.

7. Eskolak, nolahi ere, gela erabilera aldatu ahal izango du, bertako jardueraren garapen egokia bermatzeko: eskolak, entzunaldiak, ikastaroak, etab. Horrelakoetan, erabiltzaileek ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

AZKEN XEDAPENA Eskola-kontseiluburuari ahalmena ematen zaio araudi hau aplikatzeko eta garatzeko behar adina arau eman ditzan.

3.Eranskina. Instalazioak erabiltzeko eskabide-dokumentua

**A.03 MUSIKA ESKOLAKO INSTALAZIOAK
ERABILERA KONTRATUAREN ESKAERA**

20...-20... IKASTURTEA

BILDURIK:

Alde batetik,....., "Tomas Garbizu" Lezoko Udal Musika Eskolako Arduradun-Irakaslea eta, bestetik, eskolako ikaslea dena:

Izen- abizenak:

Helbidea:

Telefonoa:

AZALDU DUTE:

Kontratu hau egin eta sinatzen dute, instalazioaren erabilerarentzat:

Ikasgela _____ Irakaslea _____

Ordutegia _____ Egunak _____

Ikasleak dohainik erabiliko du ikasgela, erabilera eskusiboa, entseiatzekoa izanik, ondorengo klausulen arabera:

KLAUSULAK

1.- Ikasleak, ikasgela behar bezala erabili eta zainduko du.
2.- Entseguetako ikasgela ireki eta itxi egingo du, ireki ondoren giltza entregatuz. 3.- Egonaldian zehar ikasgelako ordena mantenduko da.

4.- Ikasgelan aurkitzen den edozein gorabehera, bulegoan jakinaraziko du.

5.- Erabilera okerrarengatik, dauden materialetan sortutako kalteak, ordeztu, berrezarri edo ordaindu egingo ditu.

Horretarako, ikasgelan aurkitutako edozein gorabehera, Eskolako Administrazioan jakinarazi ezean, erabiltzailea kalteen erantzule izango da.

6.- Kontratu honen balioa, kurtso batekoa izango da, epea luzatzeko aukerarekin.

Alde biek, adierazitakoarekin ados egonik, dokumentu hau izenpetu dute,

Lezon, 20_(e) ko _____ren ___(e) an.

ARDURADUN- IRAKASLEA
Arduraduna

E.K.ko Presidentea

Erakundeko